Paris 17/12/48

Jaun adiskide maitea,

Zure gutuna artu nuen ta pozik irakuri ene bertsoak maitatu zenituela. Eskeřak dizkizut zure iritzia ain garbiki emateaz. Esan gabe dijoa baimena ematen dizudala nai dituzun olerkiak ager-erazteko irudi ba'zaizu balio zerbait badutela.

Geroxeago idatzirik ditudan beste batzuek bialiko dizkizut: lenengoak baño alaiago dira, maitasuna ta Izadia aitatzen

zala da, ta alare irudi zait
ortan dala gure ele aberkoia
berpizteko bide bakaŕa:
euskal-elerti bat eratu, beste
edozein eŕitakoaren maĩlara
eldubuko litzakena.

Jauna, uzten zaitut aldi
ontako.

Zure adizkide leial dan
Mirande'tar Jon

Mirande'tar Jon Jnar.
Davout Ibiltokia 106 garren
Paris XX garren

dituzte-ta.

Esañ ziñidan olerki-idazti beŕi bat argitaltzekotan ziñala. Itxaropenez nago laster gertua izango dala; zure bertsoak oso edeŕak bai zaizkit. Maiz irakurtzen ditut jadanik ditudan zure bi liburuak "Uŕundik" ta "Gudarien egiñak" eta beti poz berarekin. Egia diozu; ~~euskal~~ idaztankera beŕi bat sortu dezu zure bi lan oriekin eta nai nizuke jaŕaitu, aladiña.

Emen Paris'en gaudenn euskal-tzale gazte batzuek euskerazko aldizkingi elertun bat agerarazteko asmotan gera, naikoa dirua bilatzen ba degu bederen. Baño ori oso